BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

4016

EBAZPENA, 2011ko uztailaren 27koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendariarena, laneko arriskuen prebentzioaren arloan prestakuntza eta zabalkundea sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituena.

Osalan, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak badaki laneko arriskuen prebentzioaren arloan enpresariak, erdi-mailako kargudunak eta langileak trebatu eta gaitu behar direla, eta Laneko Segurtasun eta Osasunak duen garrantziaren inguruko gizarte-kontzientziazioa txikia dela.

Enpresaren eremuan, kudeatzaile gehienen prestakuntza progresiboa den arren, oraindik ere ez da behar adinakoa, eta horrek eragotzi egiten du enpresek euren jardueraren barruan laneko arriskuen prebentzioa sartzea; bestalde, egoera hori langileen kontzientziazio eskasaren ondorio ere bada, langileek ez baitute behar adinako prestakuntzarik eta informaziorik.

Azaldutako guztiarengatik, Osalanen Plan Estrategikoan zehaztutako lehentasunezko helburuen artean honako hau dago: prebentzio-kultura unibertsala, enpresa-kudeaketan integratua, lanmerkatuaren gaurko eta biharko osagai guztietan barneratzea; halaber, prebentziorako sistemak, teknikak eta tresnak ezartzeko hainbat eragilerentzat erabilgarria izan daitekeen ezagutza eta pilaketa sustatu eta kudeatu nahi dira.

Osalanek zeregin batzuk dauzka bere helburuak –hau da, prebentzioa eta laneko segurtasun, higiene eta osasunaren sustapena– betetzeko; horretarako, enpresa-kudeaketan prebentzioaren kultura bultzatu eta sustatzen du, deialdi honetan gauzatzen diren diru-laguntzen bitartez.

Printzipio horiei jarraituz, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak 2011rako onartzen dituen abenduaren 23ko 5/2010 Legearen arabera onetsitako gastu-kredituaz baliatuz, hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten irabazi asmorik gabeko erakundeei emango dizkien diru-laguntzak arautzea da deialdi honen helburua; Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloan prestakuntza eta zabalkundea sustatzeko 2011ko ekitaldian burutzen dituzten jarduerengatik emango dizkie diru-laguntzak, ondorengo artikuluetan zehaztuko den moduan eta bere Aurrekontuko IV. kapituluan esleitutako kredituen arabera. Helburu horretarako, 270.000 euro emango dira, eta diru-zenbateko horren aurrekontu-egozpena Osalanen 2011ko aurrekontuko 3113 programaren 454.99 partidaren bitartez egingo da.

2. artikulua.– Laguntzen izaera.

1.– Ebazpen honetan jasotako laguntzak itzultzekoak ez diren diru-laguntzak izango dira eta lehiaketaren bidez emango dira.

2.– Aurkeztutako eskabideen ebaluazioa egin ondoren, balorazio altuena lortu dutenak onetsiko dira, harik eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan laguntza hauetarako aurreikusita dagoen kreditua agortu arte, edo, indarrean dagoen legediaren arabera aurrekontu aldaketarik onartuz gero, kreditu horren ondoriozkoa agortu arte.

3. artikulua.– Erakunde onuradunak.

Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten irabazi asmorik gabeko erakundeek eskatu ahal izango dituzte ebazpen honetan bildutako diru-laguntzak.

4. artikulua.– Zerga-obligazioak, Gizarte Segurantzarekiko obligazioak, laneko segurtasun eta osasunaren alorrekoak eta diru-laguntza publikoen arloko obligazioak betetzea.

1.– Ebazpen honetan ezarritako diru-laguntzak jasotzeko eta ordaintzeko, erakunde eskatzaileek egiaztatu egin beharko dute beteta dituztela dagozkien zerga-obligazioak, Ekonomia eta Ogasun Sailak horren inguruan xedatutakoarekin bat, bai eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioak ere.

2.– Deialdi honetatik kanpo geratuko dira, era automatikoan, honako alderdi hauek behar bezala egiaztatzen ez dituzten erakundeak: batetik, azken bost urteetan laneko segurtasun eta osasunaren aurkako delituengatik edo administrazioko arau-hauste oso larriengatik izandako zigorrei edo zehapenei dagozkien alderdiak; eta, bestetik, ebazpen honen 7.1 artikuluan xedatutakoari jarraiki ezarri behar zaien araudia betetzeari dagozkionak.

3.– Halaber, ebazpen honetan aurreikusitako laguntzak erakunde onuradunei emateko eta ordaintzeko, ezinbestekoa izango da amaituta egotea itzulketa- edo zehapen-prozedura oro, baldin eta prozedura hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza edo diru-laguntzengatik hasi bada, eta oraindik ere izapidetzen ari bada.

4.– Deialdi honetan ezingo dute parte hartu: zehapen penal edo administratibo bat jaso dutelako diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera galduta duten pertsona juridikoek; 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenaren arabera-sexu bazterkeriagatik zigortutakoek (4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakume eta gizonen berdintasunari buruzkoa), eta horretarako ez-gaitzen dituen lege-debeku baten eraginpean daudenek.

5. artikulua.– Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak.

Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak 2011ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egin beharko dira, eta honelako jardueraren bat egiteko izango dira:

a) Laneko Arriskuen Prebentzioan prestakuntza sustatzeko ekintzak; horretarako, Laneko Segurtasun eta Osasunaren arloko prestakuntza-ekitaldiak eta/edo ekitaldi zientifiko-teknikoak antolatu eta kudeatuko dira. Izenburu honen inguruan egindako ekintza oro presentziazko ekintzetan gauzatuko da. Gainera, diru-laguntza jaso ahal izateko, gutxienez, 30 lagun eskatuko dira ekintzako.

Honako hauek kanpoan gelditukо dira: Laneko Arriskuak Prebenitzeko araudian eskatzen diren prestakuntza-ekintzak, lanbide batean jarduteko titulu edo ziurtagiri bat egitea ezinbestekotzat duten jarduerak edo beste titulazio batzuen barruan sartzen direnak (ofizialak, ez-ofizialak), bai eta graduko edo graduondoko tituluak, masterrak edo antzeko tituluak ere.

Idatzi-zati honetara bildutako ekintzak, diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren % 75eraino lagunduko dira eta, gehienez, 1.000 euro emango dira ekintza bakoitzeko. Gainera, diruz lagundu

daitekeen gehieneko mugatzat hau hartuko da: 100 euro emandako zuzeneko ikastordu bakoitzeko, gastuak barne.

b) Laneko arriskuen prebentzioaren arloko zabalkunderako ekintzak, hala nola: sentsibilizazio-, informazio- eta zabalkunde-kanpainak, eta prebentzioaren kultura sustatzeko kanpainak. Komunikabideetan (prentsan, irratian zein telebistan) egindako kanpainak, informazio-iragarkiak, eskuorriak, triptikoak, kartelak eta antzeko objektuak ere diruz lagungo ahal izango dira.

Zabalkunde-jardunaldiei a) idatzi-zatiko baldintzak ezarriko zaizkie.

Erakunde antolatzaileko, Merkataritza Kodeko 42. artikuluan jasotako sozietate-talderen bateko erakundeetako edo, kontratatutako –azpikontratu bidez edo beste mota bateko kontratu bidez– enpresetako langileei zuzendutako jardunaldiak ez dira diruz lagunduko.

Ekintzak justifikatzeko, b) idatzi-zati honetan onartuko dira diseinu, maketazio, inprimaketa, banaketa, publizitate, koordinazio eta antzeko ekintzetatik sortutako gastuak. Diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren % 75eraino lagunduko dira gastuak. Koordinazio-gastuek ezin izango dute gainditu aurrekontu horren % 10, eta gehienez 1.000 eurokoak izango dira.

Dena dela, 20.000 euro eman daitezke –goitik jota– enpresa eta burututako ekintza bakoitzeko. Enpresa bakoitzari –burutu dituen egintza guztiengatik– esleitutako diru-laguntza ezin da izan ebazpen honetan izendatutako aurrekontuaren % 10etik gorakoa.

Ez dira diruz lagunduko aldizkarietan-eta argitaratutako artikuluak.

Ez zaie diru-laguntzarik emango, halaber, dauden tresna informatikoen egokitzapen edo moldaketei, ezta beste ekitaldiren batean, Osalanen laguntza jaso ala ez, plazaratutakoen berrargitalpenei ere.

Orobat, ez da ekintzarik diruz lagunduko baldin haren edukia edo xedea eta aurreko urteetan diruz lagundu den proiektu baten garapenarena edo egokitzapenarena bat badatoz.

Jardunbide egokien gida edo eskuliburuen edizio, informazio-fitxen karpeta, informazio-afitxa edo antzekoengatik, gehienez ere, diruz lagun daitekeen zenbatekoa 1.000 eurokoa izango da.

Lehiaketak, sariketak edo antzekoak egiteagatik diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoa 3.000 eurokoa izango da.

6. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1– Eskabideak aurkezteko epea 2011ko irailaren 15ean amaituko da.

2.– Eskabideak Osalanen egoitzan aurkeztu behar dira (Dinamita bidea z/g, 48903 Barakaldo, Bizkaia), edo Araba, Bizkaia edo Gipuzkoako Lurralde Zentroetan, bai zuzenean, bai Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako edozein bidez baliatuz.

7. artikulua.– Aurkeztu beharreko agiriak.

Eskabideak Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiari igorriko zaizkio, honako dokumentazio honekin batera:

1.– Administrazio-agiriak.

– Eskabide normalizatuaren inprimakia (I. eranskina), eskaera egiten duen erakundeari buruzko datuekin.

– Elkarteen Erregistroan edo erakundeari dagokion erregistro publikoan izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiriaren kopia.

– Identifikazio Fiskalerako Kodea esleitzen duen agiriaren kopia.

– Erakunde antolatzailearen estatutu edo erregelamendu ofizialen kopia.

– Foru Ogasunaren ziurtagiri eguneratua eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren Probintzia Zuzendaritzarena, edota behar den erakundearena, egiaztatzeko ezen erakunde eskatzaileak beteta dituela dagozkion zerga-obligazioak, eta bai Gizarte Segurantzarekiko obligazioak ere. Eskabidea aurkeztu ahal izateko soil-soilik, ziurtagiri horren ordez, behar bezala zigilatutako idazki bat aurkezterik izango da, zeinetan jasoko baita ziurtagiria eskatua dela. Zor bat atzeratzea lortua duen erakunde edo enpresak, ordainketak eguneratuta dauzkala iritziko da, baina agirien bidez egiaztatu beharko du hori guztia.

– Erakundearen legezko ordezkariak egindako zinpeko aitorpena (II. eranskina); ordezkaria behar bezala akreditatuta egongo da. Aitorpenean honako hau azaldu behar du: deialdi honen aurreko bost urteetan, erakundeak ez duela zigorrik jaso, epai irmoaren bidez, laneko segurtasun eta osasunaren alorrean delituak egin izanagatik, eta ez duela zehapen irmorik jaso arlo horretan arau-hauste administratibo oso larriak egin izanagatik; adierazi beharko du, halaber, ez dela sexu bazterkeriagatik zigortua izan, Emakume eta gizonen berdintasunari buruz otsailaren 18an emandako 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean xedatutakoarekin bat. Laneko segurtasun eta osasunaren arloko araudiak ezarritako betekizun hauek betetzen direla ere azaldu beharko da:

a) Prebentzioa antolatzeko modu bat baliatuz, Laneko Arriskuen Ebaluaketa eta Prebentzio Plana egin duela, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onesten duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren 10. artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Eta urteko prebentzio-plangintza egin duela.

b) Laneko Arriskuen Prebentzio Sistemaren auditoria egin duela –hala eskatzen duten antolaketa-moduetarako ezarrita dagoena–, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren 29. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

– Erakunde eskatzailearen zinpeko aitorpena (II. eranskina), honako hau azaltzeko: Administrazio honi, beste administrazio publiko batzuei edo beste erakunde publiko batzuei helburu eta xede berbera lortzeko eskatu zaien beste edozein laguntzaren egoera (eskatu dela, eman dela edo izapidetzen ari dela, hain zuzen ere).

– Erakunde eskatzailearen zinpeko aitorpena (II. eranskina), itzultzeko edo zehatzeko prozedurei buruzkoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko diru-laguntza edo laguntzen arloan hasi eta izapidetzen ari badira.

– Erakunde eskatzailearen zinpeko aitorpena (II. eranskina), honako hau azaltzeko: ez dagoela –zehapen penal edo administratibo bat jaso izanagatik– diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera galduta, ezta horretarako gaitasunik gabe uzten duen lege-debeku baten eraginpean ere. Zigorren artean sartzen dira, orobat, sexu-diskriminazioaren ondoriozkoak, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenen artetik seigarrenean xedatutakoarekin bat.

– Enpresa eskatzaileak hitzartu dituen kanpoko prebentzio-zerbitzu baimenduen ziurtagiria aurkeztu beharko da; ziurtagiri horretan jaso beharko da, halaber, hitzarmen horiek indarrean daudela eta zeintzuk diren hitzartutako espezialitateak.

– Baimendutako auditoria-erakundearen ziurtagiria aurkeztu beharko da, eta bertan honako hau jasoko da: enpresak prebentzio-sistemaren arauzko auditoria egina duela eta hori eguneratuta dagoela.

2.– Agiri teknikoak.

2011ko ekitaldian egin diren edo egin nahi diren jardueren deskribapen zehatza, diru-laguntzen deialdi honen helburu badira; ekintzak bereizi behar dira eta ekintza bakoitzaren aurrekontua banakatu behar da, ebazpen honen 10. artikuluan ezarritako eta baloratu beharreko alderdiak azpimarratuz (III. eranskina bete beharko da).

Aurrekontua banakatzerakoan honako hauek azaldu beharko dira: gastuak, dokumentazioa edo informatika-baliabideak saltzeagatik lortutako diru-sarrerak –kasua bada–, bai eta jarduerari lotutako beste edozer ere.

8. artikulua.– Aurkeztutako eskabidean egindako okerrak zuzentzea.

Diru-laguntzarako eskabide-orriak behar bezala eta oso-osorik bete ezean, edo ebazpen honen 7.1 artikuluan adierazitako administrazio-agiriak eransten ez badira, aurkitutako akatsa zuzentzeko edo falta diren agiriak aurkezteko eskatuko du Osalanek, eta, horretarako 10 egun balioduneko epea emango du, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera. Horretaz gain, eskatzaileari ohartaraziko zaio ezen, horrela egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela joko dela eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 artikuluan ezarritakoari jarraituko zaiola.

9. artikulua.– Laguntzak kudeatzea eta Balorazio Batzordea.

1.– Ebazpen honetan aurreikusitako diru-laguntzen kudeatze-lanak egitea Osalani dagokio.

2.– Aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, Osalanen Balorazio Batzorde bat eratuko da, eta kide hauek osatuko dute:

Lehendakaria: zuzendariorde teknikoa.

Kideak:

– Laneko Osasunaren Unitateko arduraduna.
– Prestakuntza, Dokumentazio eta Argitalpenen arduraduna.
– Osalaneko hiru teknikari.
– Idazkaria: Osalaneko teknikarietako bat.

10. artikulua.– Diru-laguntzak esleitzeko eta kuantifikatzeko irizpideak.

Diru-laguntzak esleitzeko eta kuantifikatzeko, Balorazio Batzordeak irizpide hauek izango ditu kontuan, bakoitzari esleitutako puntuazioaren arabera:

a) Jardueraren kalitate-maila. 25 punturaino baloratuko da, gehienez.

b) Eransten dituen elementu berritzaileak. 25 punturaino baloratuko da, gehienez.

c) Zabalkunde-maila: jardueraren hartzaileak, ikuspuntu kuantitatibotik eta kualitatibotik. 10 punturaino baloratuko da, gehienez.

d) Jardueraren nolakotasuna; helburuak ondoren adierazten diren arloekin bat datozen ala ez baloratuko da: 20 punturaino baloratuko da, gehienez.

Arrisku psikosozialak eta ergonomikoak.

Arriskuen aurrean ahulenak diren langileak.

Langile autonomoak.

Berriki sortu eta goraka doazen arriskuak.

Eraikuntzako istripu-tasa.

Izendatutako gaixotasun profesionalak murriztea xede duten ekintzak.

e) Ekintza edo tresna beste sektore edo kolektibo batzuetara egokitzeko edo eramateko aukera. 10 punturaino baloratuko da, gehienez.

f) Ekintzaren deskribapen zehatza; aurrekontuaz gain, ekintza garatzeko aurreikusitako egutegia eta kronograma eta ekintzaren jarraipena eta ebaluaketa bermatzen dituzten prozedura posibleak adierazi behar dira. 5 punturaino baloratuko da, gehienez.

g) Erakundearen estatutuetan ezarritako helburu sozialaren eta laneko arriskuen prebentzioaren artean dagoen harremana. 5 punturaino baloratuko da, gehienez.

11. artikulua.– Diru-laguntzak ematea.

1.– Eskabideak Balorazio Batzordeak aztertuko ditu, ebazpen honen 10. artikuluan ezarritako irizpideei jarraiki.

2.– Balorazio Batzordeak dagokion erabaki-proposamena behar bezala arrazoituko dio Osalaneko zuzendari nagusiari, eta berak ebazpen baten bidez esleituko edo ezeztatuko du eskatutako diru-laguntza. Ondoren, ebazpen hori eta egon daitezkeen aldaketak interesatuei jakinaraziko zaizkie eta Euskal Herriko Agintariaren Aldizkarian argitaratuko dira.

3.– Aurreko artikuluan zehaztutako Ebazpenak administrazio-bidea amaitzen du eta, haren aurka, badago aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztea Osalaneko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 107. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraiki; bestela, badago administrazioarekiko auzi-errekurtsoa zuzenean aurkeztea Bilboko Administrazioarekiko Auzietarako dagokion epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.3 eta 46.1 artikuluetan ezarritakoari jarraituz.

4.– Ebazpen honen babespean aurkeztutako eskaerei buruzko ebazpen adierazia emateko eta jakinarazteko gehieneko epea 2011ko azaroaren 30era artekoa izango da. Epe hori igaro eta ebazpen adierazirik eman ez bada eta jakinarazi ez bada, eskabideak ezetsitzat jo ahal izango dira, hain justu ere Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan ezarritako ondorioetarako, betiere Administrazioak ebazpena emateko duen obligazioa kaltetu gabe.

5.– Diru-laguntza emateko jakinarazpena jaso eta hamabost egun balioduneko epearen barruan, pertsona edo erakunde onuradunak diru-laguntzari beren-beregi uko egiten ez badio, laguntza onartu dela ulertuko da.

12. artikulua.– Gauzatzeko epea.

Diru-laguntza jasotzen duten jarduerak aurten gauzatu beharko dira eta, edonola ere, 2011ko abenduaren 31 baino lehen amaituta egon beharko dute.

13. artikulua.– Diru-laguntza ordaintzea.

Emandako laguntza ordaintzeko, diru-laguntza jaso dezakeen jarduerak aurretik burututa egon beharko du, horiek esleitzeko ebazpenak ezarriko dituen baldintzetan eta eran. Horretarako, 2012ko otsailaren 28a baino lehen agiri hauek aurkeztu beharko dira:

– Egindako jarduerak justifikatzen dituen memoria; aurreikusitako plana gauzatzeko zehaztasunak frogatzen eta bermatzen dituzten informazio guztiak bildu beharko dira bertan.

Laneko Segurtasun eta Osasunaren alorreko prestakuntza-ekitaldiak edo/eta ekitaldi zientifiko-teknikoak direnean, bai eta zabalkunde-jardunaldiak direnean ere, jarduera ebaluatzeko galdetegiak aurkeztu beharko dira, eta galdetegi horiek parte-hartzaile guztiek bete beharko dituzte. Galdetegi hori erakunde eskatzaileak prestatu beharko du, eta eskabidean izendatutako helburu espezifikoen arabera egingo du. Halaber, ebaluazio-galdetegia aztertu ostean lortutako ondorioei buruzko txostena ere aurkeztu beharko da.

– Onartutako aurrekontuan azaltzen diren gastuei dagozkien egiazko egiaztagiriak, jatorrizko fakturak edo konpultsatuak, edo Zuzenbidean onartzen den beste edozein agiri; eta ondokoak ere hala egiaztatu beharko dira: matrikulatik, agirien salmentatik eta gainerako finantzaketa-iturrietatik sortutako diru-sarrerak, guztiak ere proiektuan aurreikusitakoak.

Kontzeptu finantzagarriak bereizita eta banakatuta agertu beharko dute faktura horietan. Gastuen fakturen edo dagozkien agirien datak 2011ko abenduaren 31 baino lehenagokoak izan beharko dira.

– Diruz lagundu daitezkeen jardueren publizitaterik eginez gero, publizitate horretan Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen lankidetza agerian utzi dela egiaztatzen duten agiriak.

Diru-laguntzaren ordainketa deialdiaren ondoko ekitaldian gauzatzen bada, laguntza ematen denetik hiru hilabete pasatzen badira eta diru-laguntza gisa 3.000 euro baino gehiago onartu badira, zerga-obligazioak eta Gizarte Segurantzarenak bete direla egiaztatzen duen agiri eguneratu berria erantsi beharko da.

14. artikulua.– Pilaketa.

1.– Administrazio honek, beste administrazio batzuek edo beste erakunde publiko nahiz pribatu batzuek helburu bererako emandako diru-laguntzak bateragarriak dira deialdi honetan araututako diru-laguntzekin. Edonola ere, erakunde onuradunek Osalani jakinarazi beharko diote beste laguntza horiek lortu dituztela.

2.– Emandako laguntza eta diru-laguntzen zenbatekoak ezin izango du gainditu egindako jardueraren kostu osoaren % 100, kontuan izanik, betiere, jarduera berarentzako beste diru-laguntzak edo finantzatutako jardueran bertan lortutako diru-sarrerak.

15. artikulua.– Diru-laguntza emateko ebazpena aldatzea.

1.– Diru-laguntza emateko garaian kontuan hartu ziren baldintzak aldatuz gero –betiere, xedea bete dela jotzen bada–, edota Administrazio honek, beste Administrazio Publiko batek edo beste erakunde publikoek zein pribatuek helburu bererako beste diru-laguntzarik edo laguntzarik emanez gero, diru-laguntzak emateko ebazpena aldatu ahal izango da, erakunde onuraduna izateko ebazpen honetan ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen badira. Ondorio horietarako, Osalaneko zuzendari nagusiak aldaketa-ebazpena emango du; bertan, emandako diru-laguntzen

diru-kopuruak birdoituko dira eta erakunde onuradunek sobera hartutako zenbatekoak itzuli beharko dituzte.

2.– Finantzatutako jardueraren balantze ekonomikoa –berari lotutako gastu eta diru-sarrera guzti-guztiak kontuan hartuta– aurrekontukoa baino txikiagoa izan bada, sortutako gastu errealari egokituko zaio diru-laguntza, era proportzionalean.

16. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

1.– Era orokorrean, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.2 artikuluan jasotako eta kasuaren arabera ezar daitezkeen obligazioak baztertu gabe (testu bategin hori azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen, diru-laguntzen onuradunek konpromisozko bermeen bidez diru-laguntzak nori emango zaizkion eta zertarako erabiliko diren bermatu beharko dute, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera (dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen du, eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen ditu).

2.– Osalaneko zerbitzu teknikoek, ebazpen honetan ezarritakoa betetzen dela bermatzeko eta egindako ekintzak egiaztatzeko, beharrezkoak diren ikuskapen– eta kontrol-jarduerak gauzatu ahal izango dituzte. Alde horretatik, Osalanek, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak eskatutako informazioa eman behar dute erakunde onuradunek.

3.– Erakunde onuradunak Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen laguntza jaso duela adierazi beharko du, diruz lagundutako jarduerak ezagutarazten, zabaltzen edo argitaratzen direnean.

17. artikulua.– Arauak ez betetzea eta erantzukizunak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53.1 artikuluan ezarritako kasuetako batean egonez gero erakunde onuraduna, edo ebazpen honetan eta aplika daitezkeen arauetan eta diru-laguntza emateko ebazpenean ezarritako arauak bete gabe utziz gero, Osalaneko zuzendari nagusiak, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoa betez, ebazpen bat emango du, eta ebazpen horren bidez, honako hau deklaratuko du: erakunde onuradunak galdu egin duela ordaintzeko dauden kopuruak jasotzeko eskubidea, eta hala behar izanez gero, ordura arte jasotako diru-kopuruak eta diru-laguntza ordaindutako unetik aurrera dagozkien legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusira itzuli beharra daukala, bidezko beste akzio batzuk bazter utzi gabe. Diru-kopuru horiek sarrera publikotzat hartuko dira, dagozkien legezko ondorioetarako, eta erantzukizunen erregimena hauxe izanen da: Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 64. artikuluan ezarritakoa.

18. artikulua.– Dirua itzultzeko prozedura.

Arauak betetzen ez diren kasuetan, emandako diru-laguntza itzultzeko prozedura honako hau izango da:

a) Osalaneko zuzendari nagusiak diru-laguntza hartzen duen erakundeari jakinaraziko dio ezen prozedura hasi dela eta berau oinarritzen duten zergatiak zein diren, eta 15 egun balioduneko epea emango dio egokitzat jotzen dituen alegazioak formula ditzan.

b) Alegazioak hartu ondoren edo epea alegaziorik egin gabe bukatzen bada, Osalaneko zuzendari nagusiak itzulketa-prozedura bukatuko du; aplika daitekeen araudia ez dela betetzen kontsideratzen badu, ebazpena emango du, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharreko diru-kopuruak ordaindu beharra deklaratzeko, jakinarazpena egiten denetik bi hilabeteko epean, gehienez. Epe hori borondatezko epetzat hartuko da.

Dirua itzultzeko prozedura ebazteko epea sei hilabetekoa izango da, gehienez.

c) Kopuru horiek borondatezko epean itzultzen ez badira, horren berri emango zaio Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Ogasun eta Finantzetako Sailburuordetzari, premiamendu-bideari ekin diezaion, aplika daitekeen lege-araudian xedatutakoa betez.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen honek berariaz ezarri gabeko guztian, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidea arautzen dituen azaroaren 26ko 30/1992 Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuan jasotako arauak aplikatuko dira.

Bigarrena.– Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen du eta beraren aurka berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiari hilabeteko epean, edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian –dagokion txandaren arabera– bi hilabeteko epean; bi kasuetan, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116. eta 117. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.3 eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Barakaldo, 2011ko uztailaren 27a.

OSALANeko zuzendari nagusia,
PILAR COLLANTES IBÁÑEZ.

I. ERANSKINA

ESKABIDE-EREDUA

……jaunak/andreak ...

……NAN-zenbakia duenak .....

erakunde eskatzailearen legezko ordezkariak.

Sozietatearen izena: .....

IFZ/IFK: ..... C.C.C.:.....

Sozietatearen helbidea: .....

PK: ..... Udalerria: .....Lurraldea: .....

Langile-kopurua, guztira: .....

Http:\\.....

Telefonoa: ..... Faxa: ..... Helbide elektronikoa: .....

.....

Harremanetarako pertsona:

.....

HONAKO HAU ESKATZEN DU:

2011ko uztailaren 27eko Ebazpenean jasotako diru-laguntzak ematea. Ebazpen hori, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena da eta Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloko prestakuntza eta zabalkundea sustatzeko diru-laguntzak arautzen ditu.

……n, 2011ko……aren……(a)n.

Sinadura eta zigilua

OSALAN-LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ERAKUNDEAREN ZUZENDARI NAGUSIA

II. ERANSKINA

ZINPEKO AITORPEN EREDUA

……jaunak/andreak ...

……NAN-zenbakia duenak .....

erakundearen ordezkariak.

IFZ/IFK: .....

Hau aitortzen du (ipini «X» bat):

☐ Deialdi honen aurreko bost urteetan, erakundeak ez duela zigorrik jaso, epai irmoaren bidez, laneko segurtasun eta osasunaren alorrean delituak egin izanagatik, eta ez duela zehapen irmorik jaso arlo horretan arau-hauste administratibo oso larriak egin izanagatik.

☐ Laneko Arriskuen Prebentzio Plana eta lan arriskuen ebaluaketa egin dituela, eta urteko prebentzio-jarduera prestatua duela.

☐ Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onesten duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren 10. artikuluan xedatutakoarekin bat, aukeratu den prebentziorako antolaketa-modua honako hau dela: …….. (*) ..... .

☐ Hala behar duten antolaketa-moduetarako ezarrita dagoen laneko arriskuei aurrea hartzeko sistemaren auditoria egin duela, aipatutako 39/1997 Errege Dekretuaren 29. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

☐ Inbertsio proiektu hau garatzeko, egun arte, laguntza jasotzeko eskaera honetaz gain, jarraian agertzen d(ir)en erakunde publiko edo pribatu(ar)en diru-laguntzak eskatu edo lortu dituela:

Eskaera-eguna	Erakundea	Programa	Eskatutako zenbatekoa	Emandako laguntza

☐ Halaber, konpromisoa hartzen du erakunde publikoetan zein pribatuetan proiektu honetarako eskatzen dituen laguntza guztiak ezagutarazteko.

☐ Erakundeak ez duela hasita itzulketa- edo zehapen-prozedurarik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko diru-laguntza edo laguntzaren baten ondorioz.

☐ Erakundea ez dagoela –zehapen penal edo administratibo bat jaso izanagatik– diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera galduta, ezta horretarako gaitasunik gabe uzten duen lege-debeku baten eraginpean ere. Zigorren artean sartzen dira, orobat, sexu-diskriminazioaren ondoriozkoak, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenen artetik seigarrenean xedatutakoarekin bat.

* Aukeratutako prebentzioaren antolaketa-motaren arabera, enpresa eskatzaileak kanpoko prebentzio-zerbitzu baimendu bat hitzartu badu, zerbitzu horri buruzko egiaztagiria aurkeztu beharko da, zeinetan jaso beharko baita, batetik, hitzarmen hori indarrean dela, eta, bestetik, hitzartutako espezialitatea.

** Aukeratutako prebentzioaren antolaketa-motaren arabera, baimendutako Auditoria Erakundearen ziurtagiria aurkeztu beharko da, eta horretan, enpresak prebentzio-sistemaren Arauzko Auditoria egin duela eta eguneratuta dagoela egiaztatuko da.

……n, 2011ko……aren…….(a)n.

Sinadura eta zigilua

III. ERANSKINA

Markatu gurutze batez diruz lagundutako proiektuaren baitako ekintza, adierazi proiektuaren izena eta deskribatu era laburrean.

(Egin nahi den jarduera bakoitzeko orrialde bat beteko da)

☐ a) Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloko prestakuntzaren sustapena.

☐ b) Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloko zabalkundea.

Proiektuaren izena: .....

.....

Proiektuaren deskribapen laburra: .....

.....

Helburu den kolektiboa: .....

Kolektiboa zenbat pertsonak osatzen dute, gutxi gorabehera: .....

Ekintzaren beharraren justifikazioa: .....

.....

Ekintzaren bidez lortu nahi diren helburuak: .....

.....

Jarduerak eta horien kostu aurreikusiak:

Jarduera .....

..... Kostua ..... euro .....

Jarduera .....

..... Kostua ..... euro .....

Jarduera .....

..... Kostua ..... euro .....

Jarduera .....

..... Kostua ..... euro .....

Kronograma eta egutegia